

Jaiotzak % 0,7 jaitsi ziren 2010eko lehen hiruhilekoan

40 urtetik aurrera ama izaten den emakume kopurua areagotu egin da

2010eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEn jaiotako haur kopurua 4.985ekoa izan zen, eta hori % 0,7ko murriztapena da aurreko urteko aldi berdinen aldean, Eustatek landutako datuak gorabehera. Lurraldeka, jaiotza kopurua jaitsi egin zen Bizkaian eta Gipuzkoan, % 1,8 eta % 0,3 hurrenez hurren, baina Araban % 2,2ko hazkundera izan zuen. Zehazki, Araban 805 haur jaio zen, Bizkaian 2.496 eta Gipuzkoan 1.684.

Jaiotzak amaren adina gorabehera banatuz gero, nagusitasun argia mantentzen da oraindik ere 30-34 urte arteko ama taldearen partetik. Adin tarte horretan gertatzen da jaiotzen % 42,8. Talde honen atzetik hurrengo adin tarteak ageri da, alegia, 35-39 urtekoa, % 28,9arekin eta 25-29 urteko taldea gaindituz, azken horrek % 15,9 hartzen duelako.

40 urte edo gehiagoko emakumeek erditutako umeen jaiotzak areagotu egin dira % 19,5ean 2009ko hiruhileko berdinen aldean. Gauzak horrela, 2009ko 260 jaiotzetatik 2010eko 323etara igaro da kopurua. Halaber, emakume horietatik jaiotakoek, guztien % 6,5, 25 urtetik beherakoek edukitakoak gainditu dituzte, % 6,0 eduki baitute.

Jaiotza hurrenkeraren arabera, 2010eko lehen hiruhilekoan erdia baino gehiago, 2.760, lehenengo seme-alabak izan dira; 1.834 haur (% 36,8) jada beste seme-alabaren bat zuen familia batera iritsi zen, eta % 7,8ra iristen da hirugarren edo ondorengo seme-alaben jaiotza portzentajea.


Ezkontzatik kanpoko jaiotzak jaiotza guztien % 30,9 dira, 2009ko lehen hiruhilekoan eskuratutako ehunekoaren puntu bat gehiago. Gipuzkoa, % 30,2arekin, izan da Euskal Autonomia Erkidego osoko balioen azpitikoak eduki dituen lurralde bakarra. Talde honen amatasun adina seme-alabak eduki dituzten emakumeen multzo osoarena baino txikiagoa da, izan ere, ama ezkongabeen % 13,4ak 25 urtetik behera zuen.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoan bizirik jaiotakoak. Alderaketarako taula.

	2010eko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2009ko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2009ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.985	100,0	5.166	100,0	5.020	100,0
Araba	805	16,1	794	15,4	788	15,7
Bizkaia	2.496	50,1	2.609	50,5	2.543	50,7
Gipuzkoa	1.684	33,8	1.763	34,1	1.689	33,6
Amaren adinaren arabera	4.985	100,0	5.166	100,0	5.020	100,0
<= 24 urte	300	6,0	325	6,3	335	6,7
25 - 29 urte	791	15,9	817	15,8	794	15,8
30 - 34 urte	2.132	42,8	2.252	43,6	2.214	44,1
35 - 39 urte	1.439	28,9	1.524	29,5	1.417	28,2
>= 40 urte	323	6,5	248	4,8	260	5,2
Amaren egoera zibilaren arabera	4.985	100,0	5.166	100,0	5.020	100,0
Ezkondua	3.444	69,1	3.502	67,8	3.521	70,1
Ezkongabea	1.541	30,9	1.664	32,2	1.499	29,9
Jaiotza-hurrenkera	4.985	100,0	5.166	100,0	5.020	100,0
Lehenengoa	2.760	55,4	2.956	57,2	2.810	56,0
Bigarrena	1.834	36,8	1.808	35,0	1.801	35,9
Hirugarrena edo gehiago	391	7,8	402	7,8	409	8,1

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

1. grafikoa: Jaiotzen hileko mugimenduak (100eko oinarria = batez bestekoa)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Argibide gehiago eskuratzeko:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01.

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua